

Kontsumitzaileak

EROSKI n ondo dakigu pertsona bakoitzak ingurumena babesten lagundu dezakeela, kontsumo eredu jasangarri eta arduratsu bat aukeratuz gero. Kontsumitzaileen prestakuntzara eta kontzientziaziora bideratzen dugu gure ahalegina, sentsibilizazio kanpainak eginez eta eduki pedagogikoak argitaratuz gure web plataformetan eta beste euskarri informatibo batzuetan. Gainera, helburu horrekin bat, bezerorekin, langileekin eta instituzioekin elkarlanean jarduteko ekimenak sustatzen eta garatzen ditugu.

Planetaren Ordua

Ondoz ondoko zortzigarren urtez, EROSKI bat egin du "Planetaren Ordua" ekimenarekin. WWF elkarteak antolatu eta Nazio Batuek babesten dute mundu osoan egiten den ordubeteko itzalaldi elektriko hori, eta ingurumenaren aldeko ekimen globalik handiena da. Aurtengo leloa "Konektatu eta itzali argia" izan da.

"Camiño a Camiño" ingurumen programa

VEGALSA-EROSKI, beste behin ere, Vigoko Udalak antolatutako "Camiño a Camiño" ingurumen programan hartu du parte. Horren bitartez, biztanleak eskualde horretako flora eta faunara hurbildu nahi dira, eta ohitura osasungarri eta jasangarriak sustatu.

Hondakinak Prebenitzeko 2019ko Europako Astea CAPRABON

CAPRABON bat egin dugu Hondakinak Prebenitzeko 2019ko Europako Astearekin, kontzientziazte eta sentsibilizatzeko jardueren bitartez, arroparen eta zapaten berrerabilera eta birziklapena sustatzeko eta zabortegetara joaten den zaborra gutxitzeko.

CONSUMER EROSKIren kontsumo arduratsuko gidaliburua

2019an, EUSKOPEF berrikuntza proiektuaren barruan, kontsumo arduratsuko gidaliburua prestatu dugu kontsumitzaileentzat; nahi duenak eskuragarri dauka comprasostenible.consumer.es webgunean. Gainera, ingurumeneko kanal espezializatua ere badaukagu www.consumer.es webgunean, pertsonen kontsumo ohitura jasangarriak irakasteko. Horretarako, besteak beste, naturari, hiriko ingurumenari, parke naturalei, energiari eta zientziari buruzko edukiak argitaratzen ditugu.

"Unha árbore, unha historia"

VEGALSA-EROSKI jarraitzen dugu ingurumenaren jasangarritasunak duen balioa sustatzen Galiziako eskoletan, gure "Unha árbore, unha historia" proiektuaren bitartez. 2019an, ipuin laburren lehiaketa literarioaz gain, 70 haritzondo eta gaztainondo birlandatu ditugu Sigüeiro inguruan.



EROSKIren Elikadura Eskola

EROSKIren Elikadura Eskolako Elikadura eta Ohitura Osasungarriei buruzko Heziketa Programan, jasangarritasunari buruzko modulu espezifiko bat dago, eta WWF erakundeak ere hartan parte hartzen du, edukiak emanez. Heziketa modulu horri esker, jasangarritasunari, elikagaien ekoizpen jasangarriari eta dieta jasangarriari buruzko prestakuntza eman diegu 442.677 ikasleri 2018-2019ko ikasturteetan. Gainera, www.escueladealimentacion.es webgunean elikagaien zarrastelkeria saihesteko zenbait eduki ditu.

Berrakibatutik + programa

Bizkaiko Foru Aldundiak sustatzen duen "Berrakibatutik +" programan parte hartzen dugu. Ekimen hori Global Action Plan (GAP) nazioarteko programan dago oinarrituta, eta herritarrek ingurumen jasangarritasunaren alde egitea du helburu; horretarako, kontsumo ohitura egokiak zabalitzen ditu. Gure bezero eta langileek izena eman dezakete www.reactivatemas.eus webgunean, EROSKIren kode hau erabiliz: 64007.